

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GUARDIA-ARABAKO ERRIOXAKO KUADRILLA

Titularrari errekerimendua, ibilgailua bide publikotik kentzeko. 5/2021 espedientea

Kripango udalerrian abandonatutako ibilgailuaren jabeari ezin zaio jakinarazpen pertsonalik egin, hura hil delako eta ez duelako jaraunslarik. Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 44. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, edozein interesduni jakinarazten zaio ibilgailua bide publikotik kentzeko agindua.

Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillak aztertu du abandonatutako hurrengo ibilgailuari buruz izapidetzen ari den espedientea:

Matrikula: 7804 BKF.

Modeloa: Opel Astra.

Jabea: José Antonio Marañón González.

Kokapena: Kripan.

Aditzera ematen da ezen, edozein interesdunen eskura dagoela, Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillako bulegoetan, abandonatutako ibilgailu gisa izapidetutako espedientea. Eta, zehazki, 42/2021 Lehendakaritzaren Ebazpenaren arabera, ibilgailu hori hiri-hondakintzat deklaratu da, baimena ematen da ibilgailu gisa kendu eta tratatzeko, eta zehapen-espedientea irekitzeko. Halaber, jakinarazten zaio entzunaldirako eskubidea duela, prozeduran agertzeko eta hamar eguneko epean alegazioak aurkeztu ahal izateko, iragarki hau argitaratzen denetik kontaktatzen hasita.

Epe horretan alegaziorik aurkeztu ez bada, proposamen hori behin betikotzat joko da.

Bestalde, jakinarazten da eta errekerimendua egiten da hamabost eguneko epean ibilgailua Kripango udalerritik kentzeko, eta ohartarazten zaio, hala egin ezean, erakunde honek modu subsidiarioan egingo duela, hiri-hondakin gisa tratatuko dela eta ibilgailuak tratatzeko zentro baimendu batera eramango dela, balizko kutsadura saihestu eta suntsitzeko, 6/2015 Legearen 106. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Horren berri ematen diogu, jakinaren gainean egon dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 82. artikuluekin bat etorritik. Ohartarazten diogu izapide-egintza bat dela, eta, beraz, ez dela bidezkoa haren aurkako errekurtsorik jartzea.

Ezarritako epean alegaziorik ez aurkeztekotan, egintza behin betiko bihurtzen bada, nahi izanez gero berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillari, hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsua, bi hilabeteko epean.

Guardia, 2021eko urriaren 11

Presidentea

JOSEBA FERNÁNDEZ CALLEJA